



**BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA:**  
**SANTA KATALINA ITSASARGIKO NABIGAZIOAREN INTERPRETAZIO ZENTROA:**  
**HIRUGARREN SALAREN (POST-SHOW) MUSEALIZAZIO BERRIA ETA HAU**  
**GAUZATZEKO EKIPO ETA MATERIALEN HORNIDURA**

**LEHENENGOA.- KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratuaren xedea hau da:

Nabigazioaren inguruko museo- eraketaren diseinua eta exekuzioa. Konkretuki, nabigatu eta gero portura heltzear sortzen diren sentsazioen inguruan. Instalakuntza hau Santa Katalina Itsasargiaren nabigazioaren Interpretazio Zentroaren hirugarren salan egingo da (postshow deitzen dena), non museo proiektu bat dago eduki hauen inguruan. Kontratu honen ondorioz sortutako material- emaitzak orain dagoen museo instalakuntza osatuko du, eta orain dagoenarekin koordinatuta egongo da baita ere. Ekintza hau Lekeitioko Ondarearen Balioestearen planaren barnean dago, Itsas Ondare Interpretazio Zentroaren proiektuan baitan hain zuzen ere.

Emaitzarekin batera, hau gauzatzeko behar den ekipamendu eta materiala hornituko da, eta itsasargiko hirugarren salan instalatuta emango da, orain dagoenarekin koordinatuta.

**BIGARRENA.- AURREKONTUA**

Gehien lehiatu daiteken prezioa (diseinua egin, gauzatzea, horniketa eta instalazioa egitearren) honako hau da:

73.000,00 € BEZ barik.

BEZ-a 13.140,00 € da.

Guztira: 86.140,00 € BEZ barne.

**HIRUGARRENA.- EZAUGARRI OROKORRAK**

- Museo proiektua edo audibisuala Santa Katalina Itsasargiaren orain dauden nabigazioaren inguruko kontzeptuekin lotuta egongo da.
- Produktzioa eta edukiak orain dagoenekin koordinatuta egongo dira. Lan honen helburua zera da: hirugarren salan (post-show deitzen dena) orain dagoen

ikuskizuna osatu, bezeroaren harreta maila gehitzeko asmoz, eta bisitariak duen azken esperientzia indartzeko.

- Erritmoa, dinamismoa, edukiaren kalitatea eta animazio osagarriak proposaturiko muntaiaren alde handia izan beharko dira.
- Ekipamendua muntaiaren kalitatea bermatzeko beste izango da.
- Esleipedunak produktua- emaitza Santa Katalina Itsasargian instalatuta emango du, orain dagoen programazioarekin koordinatuta. Horrela, lehen eta orain sortutako esperientzi biak batera azalduko dira, bisita bakar bat osatuz.

#### **LAUGARRENA.- IRAUPENA.**

Emaitzak 5- 7 minutu iraungo du.

#### **BOSTGARRENA.- EDUKIA.**

- Proiektua honako edukin hauek landuko ditu: nabigatu eta gero portura heltzear sortu daitezken sentazioak, itsas kultura edo/eta nabigazioa. Hirugarren salan agertzen diren edukiak indartu nahi da, aurreko sala biak pasatu eta gero harreta mantendu eta gehitzeko.
- Halaber, enpresak proposaturiko hobekuntzak ere kontutan hartuko dira.

#### **SEIGARRENA.- GIDOIA.**

Muntaiaren gidoia erakargarria izango da, eta ez da izango oso historiko, tekniko edo errepikakorra. Enpresak edozein baliabide tekniko erabili dezakete porposamenaren garapena hobetzeko. Enpresak ere estaliak diseinatu ditu, egon ezker.

#### **ZAZPIGARRENA.- MUSIKA EDO SOINUA.**

Musika unibertsala erabiliko da soinua jartzeko, egon ezker.

#### **ZORTZIGARRENA.- SOPORTEA.**

CD soportea. Emaitzaren "master" bat emango da.

#### **BEDERATZIGARRENA.- HIZKUNTZAK.**

Enpresak lau ale emango ditu, honako hizkuntza hauetan: euskera, gaztelania, ingeles eta frantses. Orain dagoen ikuskizunarekin koordinatuta jarriko dira (euskera



eta gaztelaniaz ikuskizunarekin batera montatua eta ingeles eta frantses bertsioak infragorria sistemaren bitartez).

#### **HAMARGARRENA.- KONTRATUA BURUTZEKO EPEA.**

Lana hiru hilabetetan burutu behar da. Edozein kasuan, 2011ko urriaren 30 baino arinago bukatuko da.

#### **HAMAIKAGARRENA.- COPYRIGHT.**

Lekeitioko Udalek Copyright-a izango du.

#### **HAMABIGARRENA.-CRITERIOS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL CONCURSO.**

Lehiaketa adjudikatzeko irizpideak hauek izango dira:

1. Proposamenaren kalitate teknikoa: Museo proposamenaren tipologia, diseinua, maketazioa eta audiobisuala edo proposamenaren irudiak. 25 puntu arte.
2. Proposaturiko gidoia edo edukiak. 25 puntu arte.
3. Prezioen proposamena. 25 puntu arte.
4. Orain dagoen proiektuarekin koordinazioa. 15 puntu arte.
5. Enpresak proposaturiko hobekuntzak. 10 puntu arte.

#### **HAMAHIRUGARRENA.- BALORAZIOA EGITEKO BATZORDEA**

Batzorde bat osatuko da proposamenen balorazioa egiteko. Batzordearen lehendakaria Lekeitioko alkatea izango da eta bertan udaleko garapen teknikariak ere egongo dira. Batzordearen lehendakariak, hala uste badu, beste aditu bat izendatuko du, nahiz eta Lekeitioko Udalaren langilea ez izan.

Lekeition, 2011ko maiatzaren 20an

**Jose M<sup>a</sup> Cazalis Eiguren**  
**ALKATEA**